

EUZKADIZ KANPOKO ERAKUNDEAK

25. artikulua.

Euzkadiko lurraldetik kanpo sortzen diren Erakundeak, baita horietan sartzen diren alderdikideak ere, Euzkadi Buru Batzarraren gidalerro orokorreari loturik egongo dira; izan ere, horrek eskuordetza bereziak zein iraunkorrak bidali ahal izango ditu, eta beharrezko deritzen beste jarduketa egitea erabaki dezake, Euzkaditik kanpo EAJ-PNVren ekintza politikoa garatzeko.

26. artikulua.

Euzkadiz kanpoko Erakundeek aberri-lurraldean dauden Uri Erakundeek bezala funtzionatuko dute, eskubide eta eginbehar berberekin, Aberri Estatutuetan xedatutakoaren kalterik gabe, eta bakoitzak bere estatutuen arabera antolatuko du bere burua barne mailan. Beraren eremuak edo jurisdikzioak eurak kokatuta dauden Herrialdearen mugak hartuko ditu, 29. artikuluan xedatutakoaren kontra jo gabe.

27. artikulua.

EAJ-PNVren aberri mailako organo zuzendarien jurisdikzioa alderdikide guztiengana hedatzen da, haien lurralde goera edozein dela ere, baita euren ohiko bizilekua Euskal Herritik kanpo dutenengana ere.

28. artikulua.

1. Euzkadiz kanpoko Erakunde bakoitza Aberri Batzarrean egongo da bere ordezkarien bitartez, botoa emateko eskubidea duela, Aberri Batzarrak berak ohiko bilkuran eta urte osorako hala erabakitzen duenean, eta honako baldintza hauek egiaztatu ondoren:

- a) gutxieneko ekintza politiko eta iraunkorra garatzea;
- b) bere barne-organoak eratuak edukitzea: Batzarra, Buru Batzarra eta Epaimahaia;
- c) gutxienez 25 alderdikide izatea;
- d) bere kuoten ordainketa normaltasunez kudeatzea.

2. Euzkadiz kanpoko Erakundearen ordezkari bati, bertako alderdikidea izanik, Aberri Batzarrera azaltzea ezinezkoa zaionean, azken horrek aberri-lurraldeko Uri Erakunde bateko edo Euzkadiz kanpoko Erakunde bateko alderdikide bati eman diezaioke bere ordezkaritza.

3. Era berean, Aberri Batzarrak erabaki ahal izango du aurreko baldintzak betetzen ez dituzten Euzkadiz kanpoko Erakundeak ere bilkuretara azaltzea, hitz egiteko eskubideaz bakarrik.

29. artikulua.

Alderdikideen kopuruagatik hala behar duten herrialdeetan, Aberri Batzarrak egoki deritzen adina Euzkadiz kanpoko Erakunde eratu ahal izango du, betiere interesatuek hala eskatuz gero, eta beren Batzarraren erabakia kontuan hartu ondoren.

30. artikulua.

Euzkadiz kanpoko Erakundeek eta euren alderdikideek haien jarduketa eremuan dauden Euskal Elkarte, Etxe eta Klubetan modu eraginkorrean parte hartu, eta EAJ-PNVren ekintza politikoan lagunduko dute.